



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/24

Bizkaiko Batzar Nagusiek AP-68 autopistaren titularitatea transferitzeko eskatu deusie Estaduari

Bizkaiko Batzar Nagusiek urteko ohiko bosgarren osoko bilkurea egin dabe gaur Gernikan, eta Batzarretako taldeen zazpi gai landu ditue bertan. Horreetako baten bitartez, Bizkaiko Batzarrek eskaria egin deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, beste foru aldundi biakaz batera, hiru Lurralde Historikoetako autopistetako “ordainsarien eta hobarien politika baten diseinuan eta ezarpenean” behar egin daian. EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu taldeek bultzatutako akordio horren bitartez eskaria egin jako Estaduko Gobernuari, AP-68 autopistaren titularitatea transferitu daian, Bizkaiko lurraldetik doazen tartetan, ordainsari guztien kudeaketea errazteko.

Podemos Bizkaiaren eta Talde Mistoaren aldeko botoa be jaso dauen eta Bizkaiko Talde Popularraren kontrako botoa izan dauen eskari hori, aitatutako batzarretako hiru taldeen zuzenketa-eske transakzionalaren parte da. Zuzenketa-eske horrek EH Bilduren arauz besteko proposamena aldatu dau. Bertan, Bizkaiko Batzar Nagusiei emoten jaken agindua jasoten da, euskal erakundeei eskaria egiteko, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euro-lurraldearen barruan, alkarren artean behar egin daien, ordainsarien eta hobarien inguruko politika komuna ezarri ahal izateko Nafarroako Gobernuagaz eta Iparraldeko Mankomunidadeagaz batera.

GAZTEDI PLANEKO BEKAK

Horrez gain, osokoak, hiru talde berberak –EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu– sinatu daben beste zuzenketa-eske transakzional bat onetsi dabe, Gaztedi planeko beken zenbatekoaren inguruan. Hasiera batean, EH Bildu taldearen mozinoak, bekadun bakotxak Lanbide arteko Gitxieneko Soldataren (LGS-SMI) “%60tik beherakoa izango ez litzateken” hileroko zenbatekoa ezartea planteetan eban, erreferentzia moduan 83/2015 Dekretua hartuz. Jeltzaleek eta sozialistek adierazo dabenez, pertsona horreek, une honetan, “466,09 euro” jasoten ditue, hau da, LGS-SMIren “%65,91”. Beraz, koalizino abertzaleak proponidu dauen testua berbaz berba onartu ezkeru, jaso beharreko kopuruak behera egingo leuke.

Laburbilduta, aho batez onetsi dan testuaren bitartez, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, “Gaztedi Bizkaia 2020” hitzarmenaren bitartez enpresetan aurrera errotan diran beken baldintza ekonomikoak, gitxienez, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Alternantzia Erregimeneko Prestakuntza Duala arautzen dauen 83/2015 Dekretuan ezarritakoak izan daitezkan.

Horrez gain, proposamen horretan eskaria egiten jako Bizkaiko Foru Aldundiari, proponidutako baldintza ekonomikoek aipamen zehatza izan daien hemendik aurrera eskualdeetako udalakaz sinatuko diran hitzarmenetan. Daborduko izapidetuta dagozan hitzarmenetan, hartu beharreko akordioa hartuko da Jarraipenerako Batzorde Mistoan, eta erakunde hori izango da ikuskaritzak egiteko beharrezkoak diran baliabideak bideratuko dituana.

EMAKUMEA “OBJEKU” MODUAN EZ ERABILTEA KIROL EKITALDIETAN



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, Podemos Bizkaia taldeak, araz besteko proposamen batean, Kirol ekintzetan emakumezkoak objektu sexual moduan ez erabiltea defendidu dau. Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe proposamena.

Proposamenean eskaria egiten jake “Bizkaian kirol ekitaldiak eta lehiaketak antolatzen dituen erakunde guztiei, eta baita babesleei be”, “ekitaldi edo lehiaketa horreetako sariak banatzeko orduan edo beste edozein unetan ez daiezan erabili emakumeak publizitaderako baliabide huts edo objektu sexual moduan”.

Proposamenak, “emakumeentzako baztertzaleak diran kirol ekintzei laguntza publikoak eta babesak ez emotea eta bertako ordezkari politikoek holangoetara ez joatea” eskatzen deutso Foru Administrazioari, Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasunerako zezeilaren 18ko 4/2005 Legeak ezarten dauen moduan.

ONARTU EZ DIRAN EKIMENAK

Beste alde batetik, osokoak, Foru Gobernua eusten daben batzarretako taldeek onartu ez dituen beste lau gai be landu ditue. Oposizino talde nagusiak –EH Bilduk– eta Podemos Bizkaiak, bakotxak bere aldetik, mozino bana aurkeztu dabe, Aldundiak giza eskubideen ikuspuntua sartu daian kontratazino publikoan. Ekimen biak onartu barik geratu dira, EAJ-PNV eta PSE-EE kontra agertu diralako eta PP eta Talde Mistoak abstendidu egin diralako.

Bizkaiko 51 ordezkariak landu dituen gaien artean Talde Mistoaren proposamen bat be jaso da, Lurraldearen nortasun zeinuen inguruko foru arauaren aldaketaren bitartez Iparragirreran “Gernikako Arbola” abestia Bizkaiko ereserki ofizial moduan finkatzeko. Idea baztertu egin da, EAJ-PNVk, PSE-EEK eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dabelako. EH Bildu alde agertu da eta PP abstendidu egin da.

PP taldeak, bere aldetik, araz besteko beste proposamen batean, Espainiako futbol selekzinoak adiskidantzazko partidu batean San Mamesen jokatzera defendidu dau. Idea ez da onartu, kontrako 37 boto (EAJ-PNV, EH Bildu eta Podemos Bizkaia) eta aldeko 10 boto (PP, PSE-EE eta Mistoak) izan ditualako. Beraz, Foru Aldundiak ez dau San Mames Barria soziedadearen barruan eskaririk “sustatu eta bultzatu” beharko Espainiako Futbol Errege Federazioaren aurrean, Athletic taldeak jokatzen dauen futbol zelaiak “ahalik eta arinen” selekzino “gorriaren” norgehiagoka bat jaso daian, popularren ekimenean eskatzen zan moduan.

MINUTU BATEKO ISILUNEA MANCHESTERREKO ATENTATUA DALA ETA

Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkideek minutu bateko isilunea gorde dabe Manchesterreko atentatua gaitzesteko eta bertako biktimei alkartasuna adierazoteko. Holan, astelehen gauean Manchester Arenan gertatu zan eta 22 hildako eta 59 zauritu itzi ebazan atentatuaren kontra agertu dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
24/05/2017

Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Estado a transferir la titularidad de la AP-68

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado hoy en Gernika el quinto pleno ordinario del año en el que se han abordado siete iniciativas parlamentarias de los grupos junteros. A través de una de ellas, la Cámara vizcaína ha acordado pedir a la Diputación vizcaína trabajar junto con las otras dos diputaciones forales “en el diseño e implementación de una política común de peajes y bonificaciones” en las autopistas de los tres Territorios Históricos. En el acuerdo auspiciado por PNV, PSE-EE y EH Bildu, se ha instado al Gobierno del Estado a que transfiera la titularidad de la autopista AP-68 en los tramos que discurren por el territorio vizcaíno para facilitar la gestión de todas las vías de peaje.

Esta petición, apoyada también por Podemos Bizkaia y grupo Mixto, y que ha contado con el voto en contra del grupo Popular Vizcaíno, forma parte de una enmienda transaccional presentada por los tres grupos junteros mencionados, que ha modificado una proposición no de norma de EH Bildu. En ella, se incluye un mandato de las Juntas Generales de Bizkaia para instar a las instituciones vascas a que, en el marco de la Euro Región de Aquitania-Euskadi-Navarra, trabajen de cara a establecer una política común de peajes y bonificaciones con el Gobierno de Navarra y con la Mancomunidad de Iparralde.

BECAS DEL PLAN GAZTEDI

Asimismo, el pleno ha aprobado otra enmienda transaccional firmada por estos mismos grupos junteros -PNV, PSE-EE y EH Bildu- sobre las becas del plan Gaztedi. En un inicio una moción de EH Bildu planteaba que se estableciera un importe mensual a percibir por la persona becaria “no inferior al 60%” del Salario Mínimo Interprofesional (SMI) cogiendo como referencia el Decreto 83/2015. En la práctica, dichas personas perciben, según nacionalistas y socialistas, “466,09 euros”, el equivalente al “65,91%” del SMI, por lo que de aceptarse la literalidad del texto propuesto por la coalición abertzale, hubiera supuesto una rebaja de la cuantía a percibir.

En resumen, mediante el texto aprobado por unanimidad, las Juntas Generales de Bizkaia han instado a la Diputación Foral de Bizkaia a que las condiciones económicas de las becas que se desarrollen en empresas a través del convenio “Gaztedi Bizkaia 2020”, sean al menos las establecidas en virtud del Decreto 83/2015 por el que se establece la Formación Dual en Régimen de Alternancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En la propuesta, se insta, además, a la Diputación Foral de Bizkaia a que las condiciones económicas propuestas tengan una mención concreta en los futuros convenios que se firmen con los ayuntamientos en las diferentes comarcas. En aquellos convenios que ya estén tramitados, se adoptará el acuerdo correspondiente en la Comisión Mixta de Seguimiento que destinará los recursos necesarios para hacer inspecciones.

ELIMINACIÓN DE LA MUJER “OBJETO” EN EVENTOS DEPORTIVOS



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, Podemos Bizkaia ha defendido en una proposición no de norma la eliminación de las mujeres como objetos sexuales en eventos deportivos, idea que ha sido apoyada de manera unánime por la Cámara vizcaína.

En la propuesta se reclama “a todas las entidades organizadoras de eventos y competiciones deportivas en Bizkaia, así como a patrocinadores”, a que “supriman la utilización de las mujeres como meros medios publicitarios y objetos sexuales en los podios o en cualquier otro momento durante la realización del evento o de la competición”.

La propuesta insta a la Administración foral a que no conceda “ayudas públicas ni patrocinios, ni que sus representantes públicos acudan a aquellos eventos deportivos que sean discriminatorios para las mujeres”, tal y como estipula la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

INICIATIVAS RECHAZADAS

Por otro lado, el pleno ha abordado otros cuatro asuntos que han sido rechazados por los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral. El principal grupo de la oposición -EH Bildu- y Podemos Bizkaia presentaban de forma separada sendas mociones para introducir el punto de vista de los derechos humanos en las cláusulas sociales de la contratación pública. Ambas iniciativas han sido desestimadas por el rechazo de PNV y PSE-EE, mientras que PP y grupo Mixto se han abstenido.

Entre los asuntos a tratar por los 51 representantes vizcaínos, se ha incluido en el orden del día una propuesta de toma en consideración del grupo Mixto para que se instaurase la canción “Gernikako Arbola” de Iparragirre como himno oficial de Bizkaia en actos oficiales, mediante una modificación de la norma foral sobre Signos de Identidad del Territorio. La idea ha sido rechazada con los votos en contra de PNV, PSE-EE y Podemos Bizkaia, mientras que EH Bildu la ha apoyado y el PP se ha abstenido.

Por su parte, el PP ha defendido, en otra proposición no de norma, la presencia de la selección española en un partido amistoso en San Mames. La idea ha decaído por 37 votos en contra (PNV, EH Bildu y Podemos Bizkaia) y 10 votos a favor (PP, PSE-EE y Mixto) . La Diputación no tendrá por tanto que verse obligada a “promover e impulsar” en el seno de San Mames Barria una petición ante la Real Federación Española de Fútbol para que el estadio del Athletic acoja “lo antes posible” un partido de “La Roja”, como así se pedía en la iniciativa de los populares.

MINUTO DE SILENCIO POR EL ATENTADO DE MANCHESTER

Los apoderados y apoderadas de las Juntas Generales de Bizkaia han guardado al inicio de la sesión un minuto de silencio en repulsa por el atentado de Manchester y en solidaridad con sus víctimas, rechazando así el atentado registrado en el Manchester Arena en la noche del pasado lunes, en el que fallecieron 22 personas y 59 resultaron heridas.